



GAUR HASIKO DIRA KALEBEHERAKO JAIK

Txupinazoa bihar botako badute ere, gaur 22:00etan 'Celda 211' filma ikusi ahal izango da Alegiako Gaztetxean 6

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2010-09-16

VIII. URTEA 2.075. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



EUSKADI TXIRRINDULARITZA FUNDAZIOA

MIKEL NIEVE TXIRRINDULARIA

«Itzuli polita ateratzen ari zait eta larunbateko etapan azken indarrak utziko ditut»

LEITZA Profesional bezala lehen garaipena eskuratu berri du Espainiako Itzulian, baina oraindik ez du lorpena gutziz barneratu 5



Iruran ibilgailu elektrikoa erosi du Udalak. E. MAIZ

Gaur hasten da Europa osoko Mugikortasun Astea

INGURUGIROA Tolosaldean bi ekitaldi izango dira: Bigarren Eskuko Azoka eta Bizikleta Bira 4

Euskaltegietan matrikulatzeko laguntza

EUSKARA UEMako udalek Aitzolen eta AEK-n euskara ikasteko diru laguntzak emango dituzte 6

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>



Trafikoa arazo izan ez dadin lanean

VILLABONA • Trafikoa eta aparkaleku faltak sortutako arazoa konpontze aldera, hainbat aldaketa egin dituzte herrian uda honetan. Batetik, Txermin inguruan eta Altzin auzoan, lerroan ziren aparkaleku batzuk baterian jarri dituzte, eta aparkalekuean zeuden zaborrantziaz kendu eta espaloietan jarri dituzte. Ondorioz, autoentzako 75 aparkaleku gehiago daude inguru horretan. Bestalde, zona urdinean 30 minutuz

doan aparkatzeko aukera izan da orain arte, baina ordubetera luzatzea erabaki dute. Maiatzean hasi zen Villabonan Eusebio Lizarazu udaltzainburu berria. Berak azaltzen duenez, herriaren zegoen egoera aztertu, eta arazoak konpontzeko planteamendu batzuk egin zituen. «Udal korporazioak oniritzia eman eta gero martxan jarri dira horietako batzuk, lehenagotik aurreikusita zeudenekin batera». ENERITZ MAIZ

Erretzeari uzteko taldea osatuko du Minbiziaren Aurkako elkarteak

Gizartea » Urriaren 6an hasiko dira, eta astean ordu eta erdiko saio bat egingo dute; ikastaroa doan izango da.

ren 6an hasiko dira. Astean ordu eta erdiko terapia bilerak egingo dituzte. Plaza mugatuak dira, eta izena eman nahi dutenek elkartearekin jarri beharko dute harremanetan, 09:00etatik 14:00etara 943 45 77 22 zenbakira deituz.

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak eta Minbiziaren Aurkako elkarteak antolatuta, erretzeari uzteko taldea osatuko dute. Ikastaroa doan izango da, Minbiziaren Aurkako elkarteak Tolosan duen egoitzan (Emeterio Arrese, 2) emango dute, eta urria-

Minbiziaren Aurkako elkartetik azaltzen dutenez, erretzeari uzteko eta unerik gogorrenak gainditzeko teknikak landuko dituzte. Diotenez, ez dago erretzeari uzteko miraririk, baizik eta esfortzua eskatzen duen prozesu pertsonala da. «Elkartetik prozesu horretan lagunduko dugu», adierazi dute.

Laburrak

Olanok herritarrek inonk partekatuko ditu

TOLOSA • Markel Olano Gipuzkoako Ahaldu Nagusia Tolosan izango da gaur, *Foru Aldundia Zure Herriaren* izeneko ekimenean parte hartzen. Saioa Topic-en izango da, eta 19:00etan hasiko da. Bertan 120 herritar inguruk parte hartuko dute etorkizunera begirako arazok eta inonk partekatuz. 943 11 22 90 zenbakira deitu edota kabinetea@gipuzkoa.net helbidera idatzi behar da parte hartzeko.

60 urtetik gorako herritarrentzat irteera

AMEZKETA • Amezketako Udaleko Kultura Batzordeak antolatuta, Ormaiztegi, Azpeitia eta Zarautza irteera egingo dute hilaren 26an. 60 urtetik gorako herritarrek dute lehentasuna, baina autobusa betetzen ez bada gainontzekoek ere joan ahalko dute. Hilaren 20, 21 eta 22an (60 urtetik beherakoek) eman ahalko da izena. Pertsona bakoitzak 27 euro ordaindu beharko ditu.



Irudikatu mundua BERRIekin

Egin harpidedun eta jaso ARGAZKI KAMERA HAU OPARI.



Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelekoa
- TFT pantaila, 2,4 hazbetekoa
- Irudiaren bereizmen egin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, +8 argazkiak hartuzko
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



Ezaugarriak:
samsung LE32C450

Telebistak 32 hazbeteko pantaila laua du, eta DNIe irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI hargune bat, PC-rao sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Urriaren 15ean, **telebista hau zotz egingo dugu** BERRIaren harpidedunen artean, Elektraen eskutik.

elektra
www.elektragaraiak.com

Harremanetarako: 943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

aukerareazazu, **bizieuskaraz** **berria**

Beti alai jatekoa

Garaian garaiko janariak

Arraiakietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Haurrak zaintzeko.** Neska bat, ikasturtean zehar haurrak zaintzeko eskaintzen da. Esperientziaduna da. Interesatuta egonez gero, deitu 685 70 6103 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Autoa.** Volkswagen Tovareg V6. Hiru urte bakarrik ditu. 100.000 kilometro ditu eta oso egoera onean aurkitzen da. Interesatuek 629 40 32 20 telefono zenbakira deitu beharko dute.

■ **Etxebizitza.** Betelun pisua saltzen da. Berria da: hiru logela, sukaldia, egongela, bi bainugela eta igogailuarekin. Prezio onean. Interesatuek deitu: 629 40 32 20 telefono zenbakira.

■ **Etxebizitza.** Orioko hondartzan ondoan pisu berria bat

aurkitzen da salgai. Bi logela, sukaldia, egongela, bi bainugela, terraza eta lur sailarekin. Bi autorentzako garaie du, gainera. Prezio onean. Interesatuek 686 14 29 16 telefonora deitu beharko dute.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Artzai txakur itxurako txakurra galdu zen larunbat eguerdian Tolosako Bonberenea inguruan. Aurkitu duenak detaileren bat jasoko du. Aurkitu edo ikusi duenak, deitu 661 67 87 89 eta 627 36 07 52 telefonora.

ALOKAIRUA

■ **Baseria edo borda.** Baserri edo bordaren bat alokatuko genduke. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

Mugikortasun astean, Bigarren Eskuko Azoka eta Bizikleta Bira

Ingurugiroa »

Larunbatean Bigarren Eskuko Azoka izango da Villabonan. Igandean, Bizikleta Bira Ikaztegietatik eta Asteasutik abiatuko da Anoetan elkarteko.

ERREDAKZIOA

Hilaren 16 eta 22aren artean Europako Mugikortasun Astea ospatuko da. Hori dela eta, Tolosaldean bi ekitaldi antolatuko dituzte. Izan ere, 2010eko Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea, *Zentzuz Mugitu eta hobeto bizi!* lelopean ospatzen ari da. Hori dela eta, Tolosaldeko zenbait udal eta Tolosaldea Garatzenek Bigarren Eskuko Azoka eta Bizikleta Bira antolatuko dituzte.

Bigarren Eskuko Azoka, larunbatean 10:00etatik 13:30ak bitartean, Villabonako Berdura plazan izango da. Eskualdeko biztanleek mugikortasun iraunkorarekin lotutako produktuak saltzeko aukera izango dute: bizikletak, kaskoak, patineteak, mailotak, kilometro kontagailuak... Objekturen bat saldu nahi duten pertsonak, gaur dute euren gauzak eramateko azken eguna eta Anoetako kiroldegian, edo Adunako, Asteasuko, Berastegiko, Elduaino, Irurako, Tolosako eta Zizurkilgo udaletxetan egin dezakete. Villabonako udaltzaingoa ere utzi daitezke, alde aurretik deituta (943 693 980). Informazio gehiago Udaltako webgunean edo 689 749 439 telefonoan eskuratu ahal da.

Igandeko Bizikleta Bira parte hartu nahi dutenek bi ibilbide egiteko aukera izango dute: Asteasutik abiatu eta Anoetako plazan bukatu edota Ikaztegietatik abiatu eta Anoetara joan. Tarteko herrietan ere, txirringulak sartzen joateko aukera izango da. Bai Asteasutik, bai Ikaztegietatik, bizikleta



laz egin zen lehen aldiz Bigarren Eskuko Azoka. Larunbatean. errepikatu egin da. HITZA

bira goizeko 10:30ean aterako da eta Anoeta izango dute helmuga. Bertan, musikaz girotuta, hamaketakoa banatuko da eta, era berean, partaide guztien artean eskualdeko bizikleta denda batean gasta-

tzeko bono bat zozketatuko da. Kanpaina honen helburu nagusia garraio mota iraunkorren aldeko sentsibilizazioa bultzatzea izango litzateke. Motordun ibilgailuak, besteak beste, CO2 isurpe-

nen eta klima aldaketaren eragile nagusienetakoak direla azaldu nahi du.

Aurtengo edizioan, ohiko mezuaz gain, aipamen berezia egin nahi izan zaio motordun ibilgai-

» EKITALDIK

Hilak 18, larunbata

■ **Bigarren Eskuko Azoka:** mugikortasunarekin lotutako materiala egongo da salgai, bizikletak, trizikloak, patinak, kaskoak, haurrak eramateko kotxeak, eskularru edo mailotak...

■ **Ordua:** 10:00etan hasi eta 13:30era.

■ **Non:** Villabonako Berdura plazan.

Hilak 19, igandea

■ **Bizikleta Bira:** 10:30ean Asteasu eta Ikaztegietatik abiatuta, Anoetan elkartuko dira.

■ **Anoeta:** 11:30ean iristea aurreikusten da eta hamaiketako eta bonu baten zozketa egingo da.

Iuen erabilera irrazional eta masiboak eragiten dituen osasun kalteei. Izan ere, motordun garraioa, kardiopatia, asma, loditasuna eta bestelako gaixotasunekin zuzenean erlazionatua dago.

Modu iraunkorragoan mugitzeak, aldiz, gure ingurunea errespetatzen eta zaintzen laguntzen digu, eta era berean, gure burua osasuntsu mantentzen eta bizi kalitate hobetuz gaituzten lagunduko digu.

Beraz, animatu eta parte hartu; *Zentzuz mugitu eta hobeto bizi!*

Herriko lanetarako, ibilgailu elektrikoak

Irura » Uztailen erosi zuen Udalak ibilgailu berria. Bi egunetik behin bateria kargatzea nahikoa du. Oso gustura daude.

ERREDAKZIOA

Irurako Udalak Mugikortasun Astea uztailetik kalean dabilen ibilgailu elektrikoak aurkezteko baliatu du. Zaratarik ateratzen ez duen eta erregairik behar ez duen ibilgailua erosi du. Entxufe arrunt baten bidez, bateria kargatu eta herriko lanetan, bi egun ez ibiltzeko gai da.

Italian eginiko ibilgailua, Katalunian erosi dute. Oso ixila da. Ez du kerik ateratzen. Bi egunetik behin, 8-10 orduz kargatzen diote bateria eta 500 kiloko pisua era-



Uztaila bukaeratik, Irurako kaleetan barrena dabil ibilgailu berria. E. MAIZ

man dezake. 1.500 kilo erremolkatu ditzake eta hidraulikoa den iraulkia du.

Herriguneko lanak egiteko oso egokia da. Elurra egiten duenera-

ko, kaleak garbitzeko, aurreko aldean palajartzeko sistema du.

Inguruko herriei, animatzeko deia luzatu nahi izan die. Mota honetako ibilgailuak erosteagatik,

Eusko Jaurlaritzak diru laguntzak ematen ditu. Agenda 21ean egonik, ingurugiroa errespetatu eta zaintzeko helburuarekin egin du hau hiru Udalak.

@ XII. Hitzaz Argazki Lehiaketa. Aurtengo udan atera ditzun argazkiekin parte hartu dezakezu lehiaketa honetan. Gustukoena aukeratu eta

argazkiak@tolosaldeko-hitza.com helbidera bidali besterik ez duzu egin behar. Argazkiarekin batera zure datuak eta argazkiari buruzkoak gehitu beharko dituzu. Sari bikainak lortzeko aukera izango duzu, lehen hiru argazkiak sarituak izango dira. Webgunean, iristen ari diren argazki guztiak ikusgai ditzugu:

www.tolosaldehitza.info

400 AUKERA HANDIA ETA GUZTIA
Kalitatezkoa

EDARIAK, ELIKAGAIK, JANTZIAK, ESKULANCINTZA,
DISKOAK, LIBURUAK, DVDAK...

SARTU ETA EROSI GUREAN

www.euskalherrikoPlaza.com

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

MIKEL NIEVE Txirrindularia



EUSKADI TXIRRINDULARITZA FUNDAZIOA

«Badakit irabazi egin dudala, baina oraindik ez dut asimilatzen»

Leitza » Kirolaren bi aurpegiak ezagutu ditu Nievek denbora gutxian: taldeko liderraren erorikoa eta lehen garaipena profesionaletan.

IMANOL GARCIA

Txirrindulari profesional bezala lehenengogaraipena lortu berri du Mikel Nievek (Leitza, 1984). Eta ez nolana hiko: Espainiako Itzulian eta etapa nagusian. Hirugarren denboraldia du profesionaletan leitzarrak, aurrenekoa Orbean eta aurtengo bigarrena du Euskaltelean.

Astearte arratsaldean elkarrizketatu zuen HITZak, atsedean egunean. Atzoko erlojupekoaren inguruan ez zuen esperantza handirik: «Nahiko gaizki moldatzen naiz eta seguru denbora dezente galduko dudala». Ez dirudi hainbeste denbora galdu duenik. Vincenzo Nibali jarri da sailkapen buruan eta 2:54 galdu ditu leitzarrak italiarrarekiko. Erlojupekoaren aurretik 11.a zen Nieve sailkapen nagusian eta orain 13.a izango da, 9:24era.

Etapa irabazi eta berehala esan zenuen ez zenuela sinesten garaipena lortu zenuela. Orain bai?
Oraindik egia esan ez. Ez naiz ohartzen. Badakit irabazi egin dudala, baina oraindik ez dut asimilatzen.

Profesionaletan horrelako lehen garaipena izatea berezia izan behar du.

Egoerarengatik izan zen. Igorren erorikoarekin kolpea hartu genuen. Ez genuen deus galtzeko eta urrutitik jokatu genuen. Egia esan, beste askotan gaizki ateratzen den bezala, orainoan ongi atera zen eta oso pozik nago.

Pentsatu bezala atera zitzaizuen. Nola izan ziren prestaketak?

Etapa hasieran pentsatu genuen taldekide bat ihesaldian sartzea eta Juanjo Oroz sartu zen. Gero Amets Txurruka eta ni San Lorenzo mendatean aurrera joate eta ihesaldian sartzea. Horrelaxe egin genuen. Juanjo Orozek izugarritzko lana egin zuen gu ihesaldian sartzeko, etagero Amets, bai Coberteria igotzeko eta bai Cotobello hasi arte, sekulako lana egin zuen. Azkenekoa niri tokatzen zitzaidan eta barruan nuen guztia eman nuen gora iristeko. Oso ongi atera zen eta oso pozik.

Zer sentsazio izan zenituen etapaz zehar?

Ikusten nuen ongi nindoala. Sentsazio onak nituen. Bakarrik bel-

durra nuen azkeneko mendatean atzetik faboritoek bat-batean abiatzen baziren harrapatuko ote zidaten. Egia esan nahiko ongi aurkitu nintzen eta nahiko azkar igo nuen. Ez zidaten harrapatu eta hobe.

Zein mementotan pentsatu zenuen etapa irabazten zenuela?

Azken hirurehun metroan. Orduan ikusi nuen inor ez zegoela atzean eta orduan bai ikusi nintze-lira irabazle. Ordura arte beldur hori nuen, hau etorriko da, bestea... Gainera jendearen oiheuekin erreferentziak ez nituen hain ongi entzuten eta nahiko urduri nindoan. Azkeneko metroak arte nuen guztiarekin igo nintzen.

Zuzendariari beraz ez zenion entzuten atzetik zen batera zetozen?

Ez zen ongi entzuten. Gero ez dakizu egia esaten dizun edo gezurra

«Ez genuen ezer galtzeko eta urrutitik jokatu genuen. Orainoan ongi atera zen eta oso pozik»

esaten dizun erreferentziak ematerakoan.

Jendeak animo asko eman zizkizun? Euskal teleko jarraitzaile asko zeuden?

Bai, jarraitzaile asko zeuden, eta asko nabaritzen da. Jendea asko

zegoen eta animoak asko esker-tzen dira.

Etapa Igor Anton eta Egoi Martinezi eskaini zenien.

Eskaini nien bai haiei eta bai talde guztiari. Denok hartu genuen kolpea, denok geunden triste. Talde osoari eskaini nion.

Horrelako zerbait gertatzen denean, hau da, taldekide bat Espainiako Itzulian indartsuena izaten ari denean eta erorikoa izatean, nola hartzen da hori taldean?

Guretzat hainbeste lan egin ondoren kolpe gogorra izandu zen eta nahiko triste gelditu ginen. Buelta osoan beharra zegoen eta begira, oso ongi atera zen.

Beraiekin hitz egin duzu?

Ez oraindik ez dut aukerarik izan.

Eta nola dauden badakizue? Kolpe handiarekin daude eta erre-kuperatzen. Gauza horiek bere denbora behar dute, eta pixkanaka pixkanaka erre-kuperatuko dira.

Etapa irabazi aurretik mendian ondo ari zinela erakutsi zenuen, bai Antonilaguntzen, bai aurreneko postuetan sartzen.

Bai, nahiko ongi aurkitzen joan naiz hasieratik eta beno, pixkanaka aurrean ikusi naiz eta horrek konfiantza handia eman dit eta bukaera honetan oso ondo etorri zaithori. **Talde bezala zein helburu dituzue?**

Erlojupekoa kenduz gero lau etapa

gelditzen dira eta saiatiuko gara zer-bait polita egiten. Berriz ere deus galtzeko gaude, beraz, zerbait etortzen bada, ongi etorria izanen da.

Ez duzue ikusi taldean zu hamar lehenengoetan sartzeko aukera?

Ez dugu deusik komentatu horren inguruan.

Azken-aurreko etapa, larunbatekoa, 'Bola del Mundo' delakora iristen den hori, aukera on bat izan daiteke zuretzat edo taldekide batentzat garaipen berri bat lortzeko?

Nik uste dut hor saiatiukogarela, bai nirekin, edo bai Ametsekin, Gorkarekin edo beste edozeinekin. Saiatuko gara etapa polit bat egiten eta

«Horrelako garaipen batek aurretik pasatutako miseri guztiak konpontzen ditu»

disputatzea tokatzen bada, ba hobe. Behintzat Itzulia nahiko polita ateratzen ari zaigu eta azkeneko indarrak horutziko ditut eta ateratzen dena aterako da.

Erlojupekoa ez da seguruenik erabakigarria izango azken sailkapen nagusirako.

Egia esan ez dut begiratu asko sailkapen nagusia. Baina pentsatzen dut erlojupekoaren ondoren sailkapena pixka bat irekita geldituko dela eta ikusiko dugu zer pasatzen den.

Txirrindularitzak esfortzu handia eskatzen du. Lortu duzun garaipenarekin bizikleta gainean pasatutako ordu guztiak eta sufrimendu guztiak ahaizten dira?

Bai, dudarik gabe. Horrelako garaipen batek aurretik pasatutako miseri guztiak konpontzen ditu. Egia esan niri txirrindularitza asko gustatzen zait, bizikleta gainean ibiltzea asko gustatzen zait, eta normalean ez zait gogorra egiten goizean entrenatzeraz ateratzea.

Tropelean agian ez zinen hain ezaguna, baina orain gehiago kontrolatuko zaituzte.

Pentsatzen dut baietz, gainera sailkapen nagusian aurrera sartu naiz eta azkenean aurreneko hamar postuetan doan jendeak bere postua defendatu nahi izaten du eta seguru Cotobello bezala ez didatela utziko. Baina memento honetan horrek ez dit batera inportatzen.

Tropelean bakarrik ez, bestela ere ezaguna egin zara eta elkarrizketa ugari egitea tokatzen ari zaizu. Nola darazazu?

Elkarrizketa batzuk izan ditut, afizionatuetan irabazi nuenean edo, baina ez dago konparatzerik atzokoa eta gero. Nahiko estresantea izaten ari da.

Garaipen batengatik izanik, errazago jasango da, ezta?

Bai, horrelako gauzengatik ongi etorria izaten da. Pixka bat pisutsua egiten da, baina eskertzen da jendeak horrela jarraitzea. Eskertzen da horrelako jende piloak telefonora deitzea.

Film emanaldi batekin hasiko dituzte gaur Kalebeherako jaiak

Alegia » 22:00etatik aurrera ikusi ahal izango da pelikula *Gaztetxean*; larunbatean bukatuko dira auzoko festak.

ERREDAKZIOA

Gaur hasiko dira Alegiako Kalebera auzoko jaiak. Gaurko ekitaldi bakarra prestatu dute, *Celda 211* filmaren emanaldia, hain zuzen.

Karteletan eguraldi ona egiten badu parkeko frontoian eskainiko dutela jartzen badu ere, eguraldi txarra iragarri dutenez *Gaztetxean* egingo dutela jakinarazi dute antolatzaileek. Jaiei hasiera emateko txupinazioa, hala eta guztiz ere, bihar botako dute 19:00etatik aurrera.



Herriko dantzari txikien emanaldia izan zuten ia. I. LAHIDALGA

» EGITARAUA

Bertso- saio musikatua

Larunbatean bukatuko dituzte auzoko jaiak eta aipatzekoa da, 22:00etatik aurrera bertso- saio musikatua ere izango dela.

Bertan bertsolari gazteek hartuko dute parte: Beñat Gaztelumendi donostiarra, Elgetan jaiotako baina Zarautzen bizi den Ainhoa Agirreazaldegik, Iñaki Gurrutxaga oriotarra eta Arkaitz Oiarzabal *Xamoa* oiarzuarrak.

Gaur, hilak 16

■ **22:00.** *Celda 211* filma eskainiko dute *Gaztetxean*.

Bihar, hilak 17

■ **19:00.** Txupinazioa buruhandien.

■ **Ondoren** patata tortilla txapelketa.

■ **Ondoren** zahagiardoa.

■ **Gauean** trikiritixa.

Etzi, hilak 18

■ **12:00.** Krosa.

■ **16:00.** Pala txapelketa kanporaketak.

■ **16:30.** Ume jolasak.

■ **Iluntzean** zahagiardoa.

■ **22:00.** Bertso- saio musikatua: Beñat Gaztelumendi, Ainhoa Agirreazaldegik, Iñaki Gurrutxaga eta Xamoarekin.

■ **Ondoren** trikiritixa.

U2ren kontzertura joateko sarrerak

ERREDAKZIOA

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak irailaren 26an Donostian izango den U2 taldearen kontzertura joateko bi sarrera zozketatuko dituela jakinarazi du. Aipatu zozketaren helburua, «azke-

naldian Villabonako herriak jasan duen xantaia ekonomikoari aurre egitea» dela nabarmendu du, izan ere, «33.000 euro ordaindu behar izan dira bere bi herrikide inolako epailetarik gabe aske utziak izateko». «Ezin dugu ahaztu, disper-

tsioak, astebururo billabonatar askoren poltsikoetan egiten duen zuloa. Guzti honi aurre egiteko, Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak elkartasun dinamika zabal bat irekita dauka. Oraingoan, U2 taldean kontzertua ikusteko bi pertsonentzako sarrerak zozketan jarri ditugu», gaineratu du.

Zozketa irailaren 24an izango da eta txartelak ohiko tokietan eskuratu daitezke.



Leaburu-Txaramako Udala ere UEMAren barruan dago. E. EZBIZA

Euskaltegietan matrikulatzeko erraztasunak

Euskara » UEMAko udalek Aitzol udal euskaltegian eta AEK-n izena emateko eta taldeak osatzeko laguntza emango dute.

ERREDAKZIOA

Eskualdeko Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko udalek jakinarazi dutenez, Aitzol Tolosako udal euskaltegiak eta Andoingo AEK-k abian jarri duten matrikulazio kanpainan lagunduko dute.

Horiek horrela, UEMAko herrietan, eskualdeko bi euskaltegien eskaintza zabaltzen ari dira kartelen, esku orrien eta bestelako baliabideen bidez.

Diru laguntzak

Euskara ikasteko diru laguntzak ematen dituztela eta herrietan taldeak sortuz geroikasleek ez dutela

Tolosara edo Andoainera joan beharrik izango, herrian bertan emango baitira eskolak nabarmendu dute udalek, eraberean.

Aurtengo eskaintzak sekula baino aukera gehiago ematen die herrietarrei euskalduntzen edo alfabetatzen hasteko: malgutasun handia ordutegietan, taldeak herrian bertan sortzeko aukera, autokaskuntza...

Matrikulazio kanpaina bihar, irailak 17, itxiko du Aitzolek, Tolosako udal euskaltegiak, eta irailaren 24an AEK-k.

UEMAko herritarrek udaletxetara jo dezakete, informazioa eskuratzeko (ordutegiak, diru laguntzak, mailak...).

Hauek dira Tolosaldeko UEMAko herriak: Aduna, Alegia, Altxo, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Elduain, Gaztelu, Ikaztegieta, Irura, Leaburu-Txarama, Orendain eta Orexa.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan **DOAN** agertuko da

HITZAk Gipuzkoan **120.000** irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900

Bizi-Nahikoek elkarteko jaiak ospatuko dituzte gaurtik aurrera

Ibarra » 12:00etan txupinazoa jaurtiz emango diete hasiera ekitaldiei, eta asteburura arte luzatuko dituzte jarduerak.

ERREDAKZIOA

Bizi-Nahi jubilatuta eta pentsiodunek beraien elkarteko jaiak ospatuko dituzte gaurtik igandera bitartean. 12:00etan ikurrina altxatuz eta txupinazoarekin ekingo diete ospakizunei. Honen ondotik, mokadutxo bat jango dute.

Arratsaldean, 16:00etatik aurrera, karta-jokoan ariko dira. Musean batzuk, tutean besteak, eta baita, eskoban nahiz puntuan ere. Egunari amaiera luntz batekin emango diote. Hau bazkideentzat izango da, eta 20:00etan hasiko da.

Bihar, goizetik, arropa eroso nahiz zapatilak jantzi eta ibilalditxo bat egingo dute. 09:30ean abiatuko dira egoitzatik eta amaitzerakoan, berriro indarrak hartzeko hamaiketako izango dute zain. Iluntzera arte ez da beste ekitaldirik izango. Baina 20:00etan zuzendaritza batzordeko kideek presta-



Urtero egiten dute toka txapelketa. R.C.

tutako eta zerbitzatutako sendi-arteko afaria izango dute elkarteko aretoan. Bertarajoan nahi dutenek aldez aurretik eman beharko dute izena elkartean. Afalostean, dantzaldia izango da.

Asteburuan jai giroarekin jarraituko dute Bizi-Nahi elkartean. Larunbatean, 11:30ean toka txapelketa jokatu da. Baina banaka behar-rean bikoteka izango da, eta hauek mistoak izan beharko dute. Irabazleentzat sari bikainak izango dira, eta norgehiagoka amaitsu ostean, bertaratutakoek Ibarroko

tomate eta piperrak dastatu ahal izango dituzte. Arratsaldean berri, 16:30etik aurrera bingoan jolastuko dira.

Igandean esango diete agur jaietara. Baina lehendabizi, 09:00etan diadna izango dute, eta 10:30ean, hildako bazkide guztien aldeko Meza San Bartolome elizan. 14:00etan gero, denak Belabietako kiroldegian elkartuko dira bazkaltzeko. Hemen ere, opariak izango dira bertaraten direnentzat. Jarraian dantzaldia izango da, eta 19:30ean, jaien amaierako txupinazoa.



Albizturko udaletxeko areto nagusian elkartu ziren parte-hartzaileak. HITZA

Rafa Uribarren herritarrekin bildu da

Albiztur » Lur-bankuen kudeaketa izan zen gai nagusia; landa inguruneen etorkizunaz ere hitz egin zuten bilkuran.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoa Eraikitzen ekimenaren baitan, Rafa Uribarren Landa Ingurumeneko diputatua 20 bat albizturarrekin bildu zen herenegun. Diputazioak azken 3 urteetan berri eman zuen bertan. Honez gain, han bildutako herritarrek euren iritzia eta ekarpenak aurkezteko aukera izan zuten. Besteak beste, Landa Gipuzkoa 32 programa, landa ingurumenaren mantentzea eta berreskurapena, lurralde oreka, baserriaren etorkizuna, extegitza-ereduak eta lurren ustiaketa izan ziren bileran zehar landutako gaiak. Azken gai horixe

izan zen elkarriketaren mamietako bat: albiztur batek herrian orain urte batzuk lurren partzelazioaren aldeko kanpaina martxan jarri zutela adierazi zion diputatuari, eta Diputazioak euren kezkei eta eskaerei kasorik egin ez zuela ere nabarmendu zuen. Uribarrenek bere egin zuen herritarren kezka, eta Diputazioaren nahia «lur bankuen kudeaketa garatzea eta hobetzea» dela erantzun zion. Horretarako, «baserri-tarren etorkizuna hobetzea, alegia, profesionalizazioa ezinbestekoa» dela ere gaineratu zuen.

Segidan, Albizturko Eskola Txikiko arduradunak hartu zuen hitza eta nabarmendu nahi izan zuen, Diputazioaren eskumena ez izan arren, eskola txikien rola oso garrantzitsua dela herri txikien biziraupenerako eta bertako eskolen kalitatea altua dela. Uribarrenek herritarren baieztapena berretsi zuen.

85 lagunek eman dute jada izena Euskal Herria eguna ospatzeko



Herri sarreran aurkitzen da bi herrien senidetzea adierazten duen plaka. I.T.

Ibarra » Antolatzaileek dei egiten diete parte-hartzailei 08:45ean plazara agertzeko, denak batera iristeko Lizarrara.

ERREDAKZIOA

Euskal Herria eguna ospatuko dute etzi Lizarran, eta bertan izango dira hainbat ibartar, bi herrien arteko anaitzearen bigarren urteurrenko ekitaldietan parte hartzeko. Ibarroko ordezkariak luzatutako datuen arabera, jada belaualdi ezberdinetako 85 lagunek eman

ekimenak beste behin ere, herritar guztiak gonbidatzen ditu Lizarrara. Honenbestez, oraindik izena eman ez dutenek, horretarako aukera dute gaur eta bihar, herriko taberna ezberdinetan. Helduek 12 euro ordaindu beharko dituzte larunbateko bazkariagatik eta haurrek, sei.

Aniak, futbol zelaian ere

Duela urte bete inguru, Lizarra eta Ibarra senidetzea erabaki zuten. Harremanari hasiera 2009ko urriaren 10ean eman zioten Ibarrran. Hartu-eman hau bi herrietako talde ezberdinek eraman dute aurrera. Horren adibide da, duela egun batzuk, Lizarrako futbol taldea eta Ibarra taldea elkarren aurka lehiatu zirela lagun arteko partida batean. Norgehiagokaren ostean, upategi batera joan ziren eta elkarrekin parranda egin zuten. Orain, Ibarrran jokatu dute itzulerako partida.

Laburrak

Extremadurako produktuak bertan eskuratzeko aukera

IBARRA » Tolosan egoitza duen Extremadurako La Jara kultura elkarteak etzizako hau da, larunbaterako, Extremadurako azoka antolatuta du Emeterio Arrese parkean. 09:00etatik 14:00etara bitartean egongo da zabalik eta han, Extremadurako produktuak salgai izango dira. Bestalde, 12:30ean Donostiako Coros y Danzas Virgen de Guadalupe taldeak Extremadurako dantza eta kantuen emanaldia eskainiko du Emeterio Arreseko parkean bertan.

Alurr dantza taldean izena emateko epea zabalik da

IBARRA » Alurrek urrian hasiko du ikasturtea eta izena emateko epea zabalik dago. Haurrek gutxienez lau urte izan beharko dituzte. Dantza Taldearen bulegoa (Arantzazu 4, behe, Ibarra-Gipuzkoa) zabalik egongo da urriaren 8ra arte. Astelehenean ostegunera, 17:00etatik 19:00etara, jo daiteke bertara matrikula egiteko agiria jaso edo aurkezteko, eta zalantzak argitzeko 635 75 70 48ra ere deitu ahal da, astelehenean ostiralera, 16:00etatik 20:00etara.

2010ko USATEGIEN ENKANTEA
BRIGARRO ETA USOA
ARESO (NAFARROA)
TEL. 948510327-608928626

Donostiatik 20 minututara
Paradetaraino sarbidea kotxez
Enkantea Udaleheko Batzar Aretoa burutuko da.
1go enkantea: irailaren 18an, larunbata, 19:00 ordutan
2. enkantea: irailaren 25ean, larunbata, 19:00 ordutan

BERASTEGIKO UDALEKO LAN ESKAINTZA: PEI ARDURADUNA

Lanpostuaren deskribapena: Eginkizun anitzeko peoia, obren kontrola eramango duena
Baldintzak: Euskara, inguruko izatea, FP II ikasketak, Informatika erabilzaile ezagutza
Iturgintza, arrotzintza, igeriltsero, enkofradore eta lorazain ezagutzak
Curriculum vitaeak e-posta bidez bidali berastegi@udal.gipuzkoa.net
helbidera irailak 30a baino lehen.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Portugaldik eta Zuberoatik



TOLOSA ● Leire Zaldiviak argazki hauxe bidali digu: «Argazki hau Portugalen ateratakoa da, Lagos-eko hondartza inguruetan. Leku zoragarria benetan». LEIRE ZALDIVIA



TOLOSA ● Koldok Portugalen atera duen argazki honekin hartuko du parte XII. Hitza Argazki Lehiaketan. KOLDO

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** XI. Garagardo Festa Zerkausian, kirol taldeek eta Udalak antolatuta.

Emanaldiak

■ **Tolosa.** Tolosako Musika Banda, XII. Garagardo Festaren barruan, Zerkausian, 20:30ean.

Deialdiak

■ **Berastegi.** Silo bolak egiteko erabiltzen den plastikoen bilketa.
■ **Villabona.** Billabonara! 8 orduko futbito txapelketa etzi, Errebote plazan (euriarekin, Olaederra kiroldegian), 12:00etatik 21:00etara. Izen-ematea, 11:00etan Errebote plazan, 943 69 34 33 zenbakian

edota billabonara@gmail.com helbidean. Txapelketa bukatu ostean, Irrintzi elkartearen afaria. Txartelak Iratzar tabernan salgai daude.

Zinema

■ **Tolosa.** *El dia que Dios se fue de viaje* filma Leidor aretoan, 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, i. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.
■ **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSA ● Zuberoan izan da Ion Alejos, eta argazki hau bidali digu: «Irudian ni azaltzen naiz, Zuberoan aurkitzen den Le Petit Bidouze izeneko leizearen azken atalean!». ION ALEJOS

argazki lehiaketa

XII. HITZA Argazki Lehiaketa Animatu eta parte hartu!

NORA BIDALI?

argazkiak@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora Irailak 30 arte

HITZA udarako argazki lehiaketa



1. Saria



Eako An...
pertsone...

3. Saria



Gorrotxo...
eskeinita...

2. Saria



Getariako O...
landetxean bi...
gau bat pasa...

Parte-hartzaile...
HITZAko materi...